

Haurrei zuzendutako ipuin tailerra antolatu du Beasaingo liburutegia

Beasain. Literatur sormena landuz ipuinak nola egin jakiteko aukera izango dute zazpi eta bederatzi urte arteko gaztetxoek. Ikastaroa urrian eta azaroan izango da eta dagoeneko eman daiteke izena udal liburutegian. Maite Franko ipuin kontalariak zuzenduko du tailerra eta 90 minutuko zortzi saio izango dira guztira. Bertan, besteak beste, honako helburu hauek landuko dira: haurrak ipuinen eduki eta egiturak aztertzeke gai izatea, ipuin mota ezberdinak ezagutzea, ipuin baten atzean dauden mezuak aztertzea eta ipuinen sormena eta azterketaren bitartez irakurtzeko zaletasuna bultzatzea.

Tailerrei bukaera emateko, azaroaren 27an saio berezia egingo da. Hizkuntz jolasak landuko dira, haur folklorea berreskuratzeko xedearekin. Asmakizunak, atsotitzak, aho korapiloak, olerkitxoak eta mendetan zehar ahoz aho transmititu diren hizkuntza jolasak. Ez da Kultura sailak antolatu duen ikastaro bakarra, izan ere, Urbieta etxean ohikoak diren tailerretan parte hartzeko aukera zabalik dago. Antzerkia, argazkigintza, dantza klasikoa, pintura eta zeramika. Antzerki tailerra aurten hamabi eta hamalau urte bitartekoentzat antolatu da lehenengoz. >a.i.